



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEAREN 2011KO JARDUEREN MEMORIA



2011ko jardueren memoria



ERAKUSKETAK

ERAKUSKETAK

2011ko urtarrila-apirila

Erakusketa: “Ana Frank. Gaurko historia bat”.



Prensaurrekoa: Odon Elorza, orduan Donostiako alkatea zena; Denis Itxaso, Kultura zinegotzia; Kleis Broekhuizen, Anne Frank Stichting-Ana Frank Museo Fundazioaren zuzendaria (Amsterdam, Holanda); eta, Juan Parra, erakusketaren komisarioa.

Inaugurazio ekitaldia: Odon Elorza; orduko alkatea, Kleis Broekhuizen, Anne Frank Stichting-Ana Frank Museo Fundazioko (Amsterdam, Holanda) zuzendaria; Juan Parra, erakusketaren komisarioa; eta, Diego Carcedo, hizlaria.

• Erakusketaren edukia (urtarrilak 27 – apirilak 30):

-Panelen bidez, modu grafiko eta argian, II. Mundu Gerra, heriotza eta sarraskiak eragin zituzten gertakariak erakutsi ziren.

-Diego Carcerero Kazetariak eta Manuel Reyes Mate filosofoak holokaustoari buruzko hitzaldiak eman zituzten.

-Material pedagogikoa.

-Bideoak: “La corta vida de Ana Frank” (gaztelaniaz) eta “Kitty maitea” (euskaraz).

-Ikastetxeei eskainitako bisita gidatuak.

-II. Mundu Gerrari, holokaustoari eta nazismoari lotutako lanen bibliografia eta filmografia.



Ana Frank-ek “atzeko etxetik” ikusten zuen gaztainondoaren aldaxka landatzen, inaugurazio ekitaldian.

ERAKUSKETAK

2011ko urtarrila-apirila

Erakusketa: "Ana Frank. Gaurko historia bat".




Bisita gidatuak:

- 47 bisita gidatu 27 ikastetxe eta 8 elkartarrentzat; 10-17 urteko 1.000 hurrek eta nerabek baino gehiagok ikusi zuten, eta adin askotako ia 300 helduk.
- 31 bisita euskaraz egin ziren, eta 16 gaztelaniaz.
- Jarduera gidatu honek 10 puntutik 8,9 puntu jaso zituen batez beste.



8.000 pertsonak baino gehiagok bisitatu zuten erakusketa.



ERAKUSKETAK

2011ko maiatza-iraila

Erakusketa: “30 eskubide.... ezta bat gutxiago ere”.




Ceinproko ikasleek egin zituzten irudiak.

- Zuri-beltzeko eta koloreko argazkiek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren berri ematen zuten, metaforen, sinbolismoaren eta keinu bisualen bitartez.
- Ceinpro, Lanbide Heziketako Zentroko ikasleek egina, erakusketak Donostiako gazteek giza eskubideei buruz duten ikuspegia eman zuen.
- Aiete Kultur Parkean jarri zen, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen ondoan. Egun horietan, Donostian zen 2016ko Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitzaren epaimahaia.

ERAKUSKETAK

2011ko uztaila-abuztua

Erakusketa: Dia Tehné: Artearen bitartezko elkarriketa. Alex Carrascosa.



Alex Carrascosa, obra baten ondoan.

- Arte performanceko erakusketa hau munduko hainbat lekutako pertsonen arteko sormenezko elkarrekintza eta elkarriketaren emaitza da. Elkarriketa bultzatzea, artea erabilita. Elkarriketa arte bihurtzea.

- Alex Carrascosa artistaren erakusketan, Guatemalan, Kolonbian, Bolivian, Austrian, Katalunian eta Euskal Herrian taldeka eginiko 45 lan daude ikusgai.

- Harreman tailerrak, pertsonen arteko topaketak eta elkarriketak bultzatzen dira.


ERAKUSKETAK

2011ko uztaila-abuztua

Hegan egitea debekatuta: Haurtzaroa eta gatazka armatuak.



Corinne Dufka-ren argazkia.



- Ospe handiko 16 argazkilari-kazetariren 36 argazki; besteak beste, Gervasio Sanchez, Corinne Dufka, Jorge Zapata, Kim Manresa eta Miguel Berrocal.
- Munduko hainbat tokitan gerraren ondorioak jasan behar izan dituzten haurren barne dramak erakusten zituen erakusketak.
- Save the Children GKEk aukeratua, eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak eta Gernika Museo Fundazioak batera antolatua.

ERAKUSKETAK

SOS Balkanes-eko agurraren jarduerak

2011ko azaroa-abendua

Erakusketa: Herioaren Jana: Bosnia Herzegovina gure miran

- SOS Balkanes erakundearen agur-erakusketa.
- SOS Balkanes-en Bosnia-Herzegovinarekiko 19 urteko konpromisoa osatzen duen erakusketa, eta egungo egoeraren eta herrialdearen etorkizuna mehatxatzen duten arriskuen ikuspegia.



SOS Balkanes-eko erakusketa Aiete Kultur Etxean.



HITZALDIAK

HITZALDIAK

2011ko urtarrilak 27

“Memoria de la mayor monstruosidad”, Diego Carcedo kazetariak emandako hitzaldia.

- Holokaustoari buruzko hitzaldia, “Ana Frank. Gaurko historia bat” erakusketaren inaugurazio egunean.
- Diego Carcedo RTVEen igarotako urteetan egin zen ezagun, eta gaur egun Europako Kazetarien Elkarteko lehendakaria da.



Diego Carcedo kazetariak “Memoria de la mayor monstruosidad” izeneko hitzaldia eman zuen.



Jende ugari joan zen hitzaldira.



Diego Carcedo; Kleis Broekhuizen, Anne Frank Stichting-Ana Frank Museo Fundazioko (Amsterdam, Holanda) zuzendaria; Juan Parra, erakusketaren komisarioa; eta, Marta Ibañez, Aiete Kultur Etxeko zuzendaria.



Manuel Reyes Mate, Aiete Kultur Etxean.

HITZALDIAK

2011ko apirilak 28

“La significación moral y social del Holocausto”, Manuel Reyes Mate filosofoak eta 2009ko Saiakera Sari Nazionalaren irabazleak emandako hitzaldia.

- “Ana Frank. Gaurko Historia bat” erakusketaren amaierako ekitaldian emandako hitzaldia.
- Manuel Reyes Mate memoriaren eta biktimen gaineko ikerketetan aditua da, eta 2009ko Saiakera Sari Nazionalaren irabazlea.



Manuel Reyes Mate filosofoa eta Gobernantza Institutuaren zuzendari Daniel Innerarity.



HITZALDIAK

2011ko azaroak 3 eta 5

Demokrazia eta Partaidetzari buruzko Jardunaldiak

Demokrazia Partehartzailea hitzaldia

- Politika publikoen kudeaketan partaidetza klabeei buruzko hitzaldia.
- Merce Cortina-k eman zuen, EHU-ko irakaslea eta Parte Hartuz-eko kidea, San Telmo Museoa.



Merce Cortina-k emandako hitzaldiaren une bat.



M15 mugimenduaren bilera bat Donostiako Boulevardean.

M 15 karpa, Donostia kanpaldia

- Egun osoan zehar (azaroak 5) hitzaldiak, dinamikak, erakusketak eta ikus-entzuneakoak antolatu ziren Donostian M 15 mugimenduaren eraketa azaltzeko.
- Hördur Torfason Islandiar artista eta aktibistak, Jon Aguirre Such "Benetako Demokrazia Orain"-eko kideak eta Jesús Bengoetxea gizarte hezitzaileak hartu zuten parte.

HITZALDIAK

2011ko azaroak 8 eta 15

Demokrazia eta Partaidetzari buruzko Jardunaldiak



Juan Manuel Sanchez-ek (eskubia) eta Pedro del Cura Sánchez-ek (ezkerra) emandako hitzaldia Donostiako Udaletxean.

Marinaleda eta Rivas-Vaciamadrid: Demokrazia ereduak

- Marinaleda Sevillako herriaren antolakuntza politiko eta sozialaren bitxikeriak azaldu zituen hitzaldiak; eta Rivas-Vaciamadrid hiri madrildarraren partehartze eta jasangarritasunaren ereduak.
- Hizlariak Juan Manuel Sánchez Gordillo, Marinaledako alkatea, eta Pedro del Cura Sánchez, Rivas-Vaciamadrideko zinegotzia izan ziren.

15 M eta Kukutza ispiluan. Haserrearen mugak eta gaitasunak.

- Partaidetza, demokrazia eta demokrazia partehartzaileari buruzko hitzaldia.
- Bilboko Rekalde auzoko Kukutza III. Gaztetxearen kasua azaldu zuten eta, beste aldetik, M15ren jarduerak, gaur egungo krisi ekonomikoak areagotutako ezinegon sozialaren ondorioz burututako lehen manifestazioetatik jaioa.
- Igor Ahedo-k, Parte Hartuz-eko kidea, eman zuen hitzaldia San Telmo Musean.



Ctrl+ Alt+ Supr Democracy-ak antolatutako hitzaldiaren kartela.

HITZALDIAK

2011ko azaroak 24

“Bakea nola egin zen, nola egiten diren bakezkoak Guatemala eta Salvador-en” hitzaldia

- Lourdes Palacios-ek (El Salvadorreko FMLNeko diputatua) eta Enrique Corral-ek (Guatemalako Fundación Torielloko zuzendaria) eman zuten.
- Mintzalariak bakea sinatzearen ekintza politikoa eta gizarteak eguneroko bakeak egiteko lanaren arteko ezberdintasunei buruz aritu ziren.



Mundu Batek eta Donostia Entremundosek antolatutako Lourdes Palacios eta Enrique Corralen hitzaldia, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.



Palacios eta Corral-en hitzaldiaren kartela.

HITZALDIAK

2011ko azaroak 28

“Kolonbiaren bakea mundu baten erreboltan” hitzaldia

- Piedad Córdoba, Kolonbian FARCak bahitutako pertsonen askapenerako negoziazioan bitartekoa izan zena, liberal senatari ohiak emandakoa.
- Munduko gatazka armatu enkistatuaren egoerari buruz hitz egin zuen, bakearen eraketa eta nazioarteko elkartasunari buruz ere mintzatu zuen.
- Hitzaldia Mundubat elkarteak, San Sebastián Munduen Artean programak eta Donostiako Udalaren Lankidetzak eta Giza Eskubideen Bulegoek antolatu zuten Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearekin batera.



Piedad Córdoba.

HITZALDIAK

SOS Balkanes-en agur-jarduerak

2011ko azaroak 24

“Iragana aurrez aurre” hitzaldia

- Vesna Terselic-ek, antimilitarismoarekin eta indarkeria ezarekin konpromezua duen aktibistak, eskeini zuen hitzaldia. ARK (Croacia-ko gerratearen aurkako mugimendua) sortu zuen eta gaur egun DOCUMENTA zentrua zuzentzen du ere.
- Hitzaldia Aieteko Kultur Parkean SOS Balkanes-ek burututako 19 urteko lanari agur esateko dela kausa antolatu zituen bost jardueretatik lehenengoa izan zen.



Vesna Terselic (eskuina), Aiete Kultur Etxean eskeinitako hitzaldiaren momentu batean.

HITZALDIAK

SOS Balkanes-en agur-jarduerak

2011ko abenduak 2

“Isiltasuna eta Justizia” hitzaldia

- Florence Hartman-ek kazetari eta idazleak eskeini zuen hitzaldi hau. “Le Monde”-ko berriemailea izan zen Bosnia Herzegovinan 90ko urteetan.
- Nazioarteko Zigor Auzitegiak 7.000 euroko isuna ordaintzera kondenatu du Hartman “Paz y castigo” bere liburuan Auzitegirako informazio konprometigarria argitaratzeagatik.
- SOS Balkanes-ek antolatu zuen mintzaldia, San Sebastián Munduen Artean, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Donostia Kultura eta Lankidetzako Bulegoarekin batera.



Florence Hartman (eskuina) Aiete Kultur Etxean eskeinitako mintzaldiaren momentu batean.

HITZALDIAK

SOS Balkanesen agur-jarduerak

2011ko abenduak 9

“Identifika zaitzete!” mahai ingurua

- Vesna Nemeč, Slavko Klisura, Abduselam Sijercic eta Esmā Drkenda, Bosnia-Herzegovinako herri ezberdinetako ordezkariak parte hartu zuten.
- Identitatea bezalako gaiak aztertu zituzten, gerratean eta egungo Estatuko diseinuan berebiziko garrantzia dutenak.
- SOS Balkanes-ek antolatu zuen solasaldia, San Sebastián Munduen Artean eta Donostiako Udala (Lankidetzako Bulegoa) eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearekin batera.



Aiete Kultur Etxean ospatu zen mahai inguruko partehartzaileak.

TOPAKETAK,
BILERAK ETA
TAILERRAK



Topaketaren inaugurazioa: Patxi Lopez, lehendakaria; Soraya Rodriguez, Nazioarteko Lankidetzarako estatu idazkaria; Pedro Castro, FEMPko presidentea; Teodoro Romero, Elkartasunerako Udal Funtsen Konfederazioko presidentea; eta, Odon Elorza, orduan Donostiako alkatea zena.



Municipia-ren III. Topaketaren parte hartzaileak.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko urtarrilak 31

Municipia-ren III. Biltzerra: “Construyendo Gobierno, Impulsando Desarrollo”.

- Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzak antolatu zuen, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren (FEMP) eta Donostiako Udalaren laguntzaz eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bitartez.
- Municipia-ren helburua: tokiko administrazioen baterako jardura bultzatzea, eta udalerriek garapenean eta pobrezia-aren aurkako borrokan bete dezaketen paperaren gaineko hausnarketa gunea izatea.



Hitzarmenaren sinadura, AECIDeko presidente Soraya Rodriguez eta FUNDEMUCAko Eskualdeetako koordinatzaile Tomas Rodriguez.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko otsailak 10

Aniztasunaren I. Tailerra (Gizarteratzeko eta Bizikidetzarako tailerra).

- Donostiako Udalak antolatu zuen, Alkatetzaren eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez.
- Helburuak: gizarte kohesioa eta bizikidetzaren hobetzea; elkargune iraunkorren sorrera bultzatzea, hala nola hausnarketarako eta talde eta erakundearen arteko jarduerak egokiak trukatzeko kontseilu bat; Kulturarteko Hirien Sarearekiko Donostiako Udalaren atxikimendua eta Gizarteratzeko II. Plana ezagutaraztea.
- “Plan Barcelona Intercultural” izeneko plana ezagutzeko, Daniel Torres zuzendariaren eskutik.



Aniztasunaren I. Tailerraren parte hartzaileak, besteak beste: Odon Elorza, Donostiako alkatea; Cristina Uriarte, Gipuzkoako Campuseko errektoreordea; eta, alderdi politikoetako ordezkariak, udal teknikariak eta gutxiengoei babesa emateko eta bitartekaritzako elkarten ordezkariak, hala nola SOS arrazakeria, Asoleus (Latinoamerikako Etorikinen Elkarte), Gurutze Gorria, Kamelamos Adiquerar, Garaipen, Fundación Secretariado Gitano, Asociación de Mujeres del Mundo Unidas eta Kolore Guztiak.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko otsailak 11

Hezkuntza, Bake Kultura eta Demokrazia Eraikitzea Sareko ordezkarien laneko bilera.

- Hezkuntza, bake kultura eta demokrazia eraikitzea izeneko sareko kidea da Donostia.
- Aieteko lan bilera Estatuko Hiri Hezitzaileen Sarearen X. Topaketaren aurreko hitzordua izan zen. Topaketa Alcalá de Guadaíra-n (Sevilla) egin zen, martxoaren 30etik apirilaren 1era.
- Hezkuntza, bake kultura eta demokrazia eraikitzea sareko kide dira honako hiri hauek: Bartzelona, Donostia, Alcalá de Guadaíra, Ferrol, Figueres, Sant Just Desvern, Mollet del Vallés, Vic, Lleida eta Granollers (sarearen koordinatzailea).
- Sarearen helburua: Hiri Hezitzaileen Gutunean jasotako printzipioak martxan jartzea, parte hartzen duten hiriek bakearen hezkuntza eta aniztasuna bultzatu ditzaten eta esperientziak eta jakin-nahiak partekatu ditzaten.





Girona, Getafe, Malaga, Las Palmas Kanaria Handikoa, Pineda de Mar eta Donostiako ordezkariak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Zigilua martxan jarri duten Europako hainbat lurralde administrazioen ordezkariak ere egon ziren, hala nola Estrasburgo, Bordele eta Belgika nahiz Norvegiako beste hiri batzuetakoak.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko martxoak 10 eta 11

Tokiko Administrazioaren Bikaintasun Zigiluari buruzko Europako Kontseiluaren II. Topaketa.

- Donostiak zigilu hau dauka, eta Europan, guztira, zortzi herrialdeetako berrogei hirik eskuratu dute. Bigarren topaketa honen helburuak ziren, batetik, Europako zigiluaren tresnak aztertzea, eta, bestetik, abian jarri duten estatuko hirien esperientziei buruz eztabaidatzea, Espainiako testuinguruan egin daitezkeen egokitzapenak eta aldaketak proposatzeari begira.
- Zigiluaren helburua: Europako lurraldeetako administrazioen jardueren kalitatea saritzea.



Elkarte bakezaleen eta erakundeen ordezkariak parte hartu zuten.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko martxoak 11

Bizikidetza eta Elkartasunaren bigarren tailerra: “Terrorismoaren biktimen eta gizarte mugimenduen egitekoa”.

- Amelia Valcarcelek “La Memoria y el perdón” izenburuko txostena aurkeztu zuen.
- “Bizikidetza eta Elkartasuna: Terrorismoaren biktimen eta gizarte mugimenduen egitekoa” tailerrarekin jarraitzea.
- Egungo egoera kontuan hartuta, adiskidetzeari buruzko hiritarren arteko eztabaida hastearen egokitasunaren gainean hausnartzea.
- Adiskidetze kontzeptuari hurbiltzea. Euskal Herrian adiskidetze prozesu batek eduki behar dituen gutxieneko oinarriak eta baldintzak.



Parte hartzaileetako batzuk.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko martxoak 17

Atzerriko politikan aditu diren pertsona ezagunen eta *think tank*-en topaketa, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen etorkizunari buruzko aholkularitza emateko.

- Parte hartzaileak: Iruñe Aguirrezabal, Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasunerako eta Kanpo Harremanen Koordinazioko zuzendaria; Carlos Alonso Zaldivar, Espainiako enbaxadorea Brasilen eta euskal diplomazialaria; Jordi Vaquer, Bartzelonako Nazioarteko Ikasketen eta Dokumentazioaren Zentroko (CIDOB) zuzendaria; Emilio Cassinello, CITpax-eko zuzendari nagusia; Ion de la Riva, Espainiako enbaxadorea UNESCOren aurrean eta euskal diplomazialaria; Manuel Escudero, Deusto Business Schooleko zuzendaria eta Nazio Batuetako Munduko Itunaren aholkulari berezia; Milagros Hernando, Espainiako Gobernuaren Presidentziaren Nazioarteko Politika Saileko zuzendaria eta euskal diplomazialaria; Andrés Ortega, Espainiako Gobernuaren Presidentziako Prospektiba eta Analisia Zuzendaritzako zuzendaria eta Nazioarteko Harremanetan aditua den kazetaria; Daniel Innerarity, Zaragozako Unibertsitateko Gizarte Filosofiako eta Politikako katedraduna, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria eta Ikerbasqueko ikertzailea; Javier Quel, Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna; Gil Carlos Rodríguez Iglesias, Real Instituto Elcanoko zuzendaria; eta, Juanjo Álvarez, Zuzenbide Publikoko katedraduna eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendari laguntzailea.



Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean eginiko topaketa.



Adituak, Aieteko Kultur Parkean.



Adituak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko martxoak 18

Atzerriko politikan aditu diren pertsona ezagunen eta *think tank*-en topaketa, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen etorkizunari buruzko aholkularitza emateko.

- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen gai estrategikoak aztertu zituzten, hala nola lanerako edukiak, sarean egin beharreko lana eta erakundearen antolakuntza.

• Ideia nagusiak:

- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea elkarrizketa eta adiskidetzarako gune izatea, ETA behin betiko desagertzen denean.

- Tokiko ikuspegitik abiatuta, lurraldeko proiektu gisa, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak nazioarteko erreferente bihurtu behar du. Zentzu horretan, zentroan bildutako pertsonak, beren erakundearen ordezkaritza gisa, erabateko babesa helarazi zioten Donostiako Udalari.



Europako Kontseiluko ordezkariak, tailerrean.



Tailer honen helburuetako bat izan da gure hirian bizikidetzeta eta gizarte kohesioa hobetzeko oinarriak sortzea.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko martxoak 31

Aniztasunaren II. Tailerra: “Gizarteratzeko eta Bizikidetzarako tailerra”, Kulturarteko Hirien Sarearen testuinguruan.

- Helburua: hainbat kolektiboren arazoak eta eskaerak aztertzea, eta bizikidetzeta eta gizarte kohesioa bultzatzea.
- Ekintza estrategia, Europako Kontseiluaren eskutik.
- 40 teknikarik eta politikarik baino gehiagok parte hartu zuten, hainbat erakunde eta elkarteren ordezkari gisa, hala nola: udal sailak, sare publiko nahiz pribatuko ikastetxeak, etorkinen elkarteak, GKEak, UPV-EHU, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritza, laguntzako eta bitartekaritzako kolektiboak, elkarte gastronomikoak eta hedabideak.



Davidson Hepburn, UNESCOren Biltzar Nagusiko lehendakaria, "Urte haietan" eskulturaren aurrean.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko maiatzak 2

Davidson Hepburn, UNESCOren Biltzar Nagusiko presidentearen bisita.

- UNESCOko Biltzar Nagusiko presidente Davidson Hepburn-ek Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ezagutu zuen, Odon Elorza orduko alkatearen eskutik.
- Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin ados jarrita, alkatetzak diseinatutako bisiten egitarauan kontuan hartu ziren Hepburn buru den antolakuntzan oinarritzko diren bi agindu: giza eskubideen eta kulturaren defentsa.
- Halaber, San Telmo museoa bisitatu zuen, eta topaketa batean parte hartu zuen, pertsona ospetsu eta interesa zuten hainbat talderekin batera.



Davidson Hepburnek Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ezagutu zuen, Odon Elorza orduko alkateak lagunduta.

2011ko maiatzak 16

Meuse de Maastricht Fundazioak (Herbehereak) Bakearen eta Giza Eskubideen Etxera eginiko bisita.



- Fundazioa, 1989an sortutakoa, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta urtero bisitaldiak antolatzen ditu, ekonomia, hirigintza, arkitektura eta kultura arloan garatzen ari diren Europako hiriak ezagutzeko. Azken hiru urteetan, fundazioak Bilbo eta Donostia aukeratu ditu.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



• Lider hispanikoek Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea bisitatu zuten, Aiete Kultur Parkean. Haiekin batera egon ziren: Jon Aizpurua, Donostiako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta, Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria; Susama del Rio, herritarren parte hartzeari buruzko Europako Batzordearen Adituen Batzordeko kidea eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren Europa Programaren arduraduna; eta, Aiete Kultur Etxeko arduradunak. Era berean, Donostiako Teknologi Elkartegia eta San Telmo Museoa ezagutzeko aukera izan zuten.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko maiatzak 17

AEBko lider hispanikoek Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea bisitatu zuten.

- Estatu Batuetako Lider Hispanikoak Programaren XIII. Edizioa egin zuen Carolina Fundazioak, Washingtingo Espainiako enbaxadak eta Fundación Consejo España-Estados Unidos fundazioak lagunduta.
- Fundazioak Espainiara etortzera gonbidatu zuen Estatu Batuetako hispaniar jatorriko gazte talde bat. Hainbat arlotan nabarmentzen diren gazteak etorri ziren (politika, enpresa, ikasketak, hedabideak, artea, ...). Helburua zen Espainiako errealitatearen berri ematea, eta bi herrialderen arteko lotura komunak indartzea.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko maiatzak 18

Wiesbadeneko apaizek Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ezagutu zuten.



- “Euskadiko aztarna politikoak eta erlijiosoak bilatzen” izeneko programaren bidez, Donostiarekin senidetutako Wiesbaden (Alemania) hiriko apaizek Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea eta Aiete Kultur Etxea bisitatu zituzten.



Emilio Cassinello, Danuta Glondys, Manfred Gaulhofer eta Jordi Pascual Ruiz.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko maiatzak 31

2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitzaren epaimahaia Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea bisitatu zuen.

Antolatutako jarduerak:

-Epaimahaikideen bilera Patxi Lopez lehendakariarekin, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiarekin, Odon Elorza Donostiako alkatearekin eta beste agintari batzuekin.

-“Bizikidetzeta eta Adiskidetasunari buruzko III Tailerra: terrorismoaren biktimen eta gizarte mugimenduen egitekoa”. Hainbat elkarte bakezalek eta erakundek parte hartu zuten.

-Piknik herrikoia egin zen, taloak eta sagardoa dastatzeko, Joserra Senperena piano jotzaileak eta Easo Araoz Gazte abesbatzak girotua, Aiete Kultur Parkean.

-“30 eskubide... ezta bat gutxiago ere” erakusketa. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala ezagutzeko ibilbidea, Ceinproko ikasleek eginiko irudien bidez.

-“Kids Gernika” horma-irudia. Picassoren Gernikaren bertsioa, Aiete Kultur Etxeko Haurtxokoko haurrek egina.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko maiatzak 31

2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitzaren epaimahaia Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea bisitatu zuen.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko ekainak 1

Etika eta Filosofia Politikoaren 17. asteko hasierako hitzaldia: Gu eta besteak.

- Euskal Herriko Unibertsitatearen Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatu zuen, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak, Gorbenantza Demokratikoaren Institutuak eta San Telmo Museoak lagunduta.

- Ernesto Garzón Valdés moral eta politikaren filosofoak biltzarreko hasierako hitzaldia eman zuen, eta giza eskubideek nazioartean duten gaurkotasunaz mintzatu zen.

- Filosofia akademikoaren, Europako eta Latinoamerikako unibertsitate-komunitatearen eta herritarren arteko elkargunea sortu nahi da, honako gai hauen gainean: demokrazia garaikidearen arazoak; besteari begiratzea, etikaren ikuspegitik; Latinoamerikako identitate zaharrak eta berriak, edo berriki gora egiten ari den aniztasun testuingurutan aplikatutako etikaren gaia.

- 300 inguru biltzarkide bildu ziren.



Ernesto Garzón Valdésék biltzarraren hasierako hitzaldia eman zuen.





Antxon Olabe, Xabier Garmendia eta Juan Jose Alvarez.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko ekainak 3

Mintegia: “Energia nazioarteko gobernantza eta klima-aldaketa. Euskal ekonomiarentzako aukerak”.

- Klima aldaketan, nazioarteko energia sistema eta baliabideetan eta garapen iraunkorrean adituak diren pertsona ezagunek Euskadiko enpresa eta teknologia sarearen aukerei buruz eztabaidatu zuten, energia trantsizioak eta klima aldaketak dituzten erronka handien gaineko hausnarketaren testuinguruan.
- Globernance, Gobernantza Demokratikoaren Institutuak antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Institutuaren egoitza Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean dago.



Ignacio Aymerich, Idoia Mendia eta Daniel Innerarity.



TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2011ko ekainak 8

Nazioarteko Biltzarra. “Giza eskubideak: Europako politiken bereizgarri”.

- Idoia Mendiak, Daniel Innerarity-k eta Ignacio Aymerich-ek inauguratu zuten.
- Helburua: Europako herrialdeen politika publikoak ebaluatzea, XX. mendiaren erdialdetik gaur egun arte, nazioarteko testuinguruan giza eskubideak Europako politiken bereizgarri izan diren ala ez zehazteko.
- Gobernantza Demokratikoaren Institutuak eta Giza Eskubideen Eraginkortasuna Ikertzeko Zentroak antolatu zuten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen laguntzaz.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



Monterreyko ordezkaritza (Mexiko), Aieteko lorategian.

2011ko uztailaren 6a

**Deustuko Unibertsitateak hirien plangintza
estrategikoari buruz antolatutako Uda Ikastaroa.**

- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean hirien plangintza estrategikoari buruzko ikastaroaren jardunaldi bat egin zen.
- Parte hartu zuten, besteak beste, Estrategia 2020 Donostia-San Sebastianeko zuzendari Kepa Kortak, Gobernantza Demokratikoaren Institutuko idazkari Juan Jose Alvarezek eta Basque Culinary Centreko zuzendari Joxe M^a Areizagak.
- Deustuko Unibertsitateak, Monterreyko (Mexiko) Escuela de Graduados en Administración Pública y Política Pública de Monterrey eskolak eta Bilbao Metrópolik antolatu zuten, Estrategia 2020 Donostia-San Sebastián-en lankidetzaz.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



2011ko uztailaren 7a

Ipar Irlandako eta Euskal Herriko gazte talde batek giza eskubideei, gatazkei, bakeari eta bizikidetzari buruz eztabaidatu zuten.



- Belfast eta Bizkaiko hogeitabi gazteek giza eskubideei, gatazkei eta bakeari buruz eztabaidatu zuten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

- Kiribil Sareak eta Spirit of Enniskillen-ek (Irlanda) bultzatu zuten topaketa.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



Txostengileak eta antolatzaileak.

2011ko uztailaren 13a

Nazioarteko Mintegia: Gerra Zibila eta memoria historikoa Iberiar penintsulako literaturetan”.

- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean egindako mintegiak mundu osoko adituak bildu zituen, Gerra Zibilaren errepresentazioa aztertzeko espainiar estatuko lau hizkuntzetako literaturetan.
- Eusko Ikaskuntzak eta Etxepare Institutuak antolatu zuten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak lagunduta.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

Abuztuaren 22a eta 23a

**UPV/EHurekin batera egindako Uda Ikastaroa.
Europako immigrazio Politikak: Europako
herritartasuna eta herritartasun globala.**

- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean eta San Telmo Museoan egindako ikastaro honetan, Europako herritartasunaren, immigrazioaren eta kultur aniztasunaren hainbat alderdi aztertu ziren.
- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak, Gobernantza Demokratikoaren Institutuak eta San Telmo Museoak antolatu zuten, UPV/EHuren XXX. Uda Ikastaroen barruan. Eusko Ikaskuntza eta Etxepare Euskal Institutua.



Xabier Aierdi, Daniel Innerarity eta Juana Goizueta.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



Juan Karlos Izagirre Brian Currinekin

2011ko irailaren 21a

Juan Karlos Izagirreren ongi etorria Brian Currini, Bakearen Etxean

- Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak ongi etorria eman zion irailaren 22an Brian Currin eta Harremanetako Nazioarteko Taldeko gainontzeko kideei Bakearen Etxean.
- Harrera naturaltasun osoz egin zen. Hegoafrikako abokatua eta bere lan taldeak hiriko alkate ohiekin bilera egitea eskatu zuten, eta alkateak, eskaera hori aintzat hartuta eta bake prozesuan aurrera egiteko ekimen honek duen garrantziaz ohartuta, bere gain hartu zuen hitzordua ezartzeko konpromisoa.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK



2011ko urriak 6

Gobernantza Politikorako Sarrera. Egungo politikak dituen aukeren eta mugen inguruko eztabaida.

- Chris Arterton, Daniel Innerarity, Juan José Álvarez eta Andoni Aldekoa parte hartu zuten eztabaidan, urriaren 6an. Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean (Donostia).
- Bertan hausnartu ziren gaiak, besteak beste, jarraian adierazitakoak izan ziren: gogoeta egin gaur egungo politikak dituen aukeren eta mugen inguruan; aztertu “komunitatearen metodoa” izeneko kontzeptuak duen konplexutasuna eta bere eragin negatiboa: ebaluatu azken hauteskunderen ondoren hartutako gobernuen erantzunkizunak.

TOPAKETAK, BILERAK ETA TAILERRAK

2010ko urria - 2011ko martzoa

Lan tailerra: Terrorismoaren biktimen eta gizarte-mugimenduek adiskidetze-prozesuan dituen egitekoa

- Bakeaz, Bakeola, Baketik, Covite, Demagun, Gernika Gogoratuz eta Gesto por la Paz, plataformek parte hartu zuten, Donostiako Udalarekin eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin batera.
